

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialetak Departamentuak Nafarroa osora hedatuko du ERSISI proiektu europarraren arreta eredua

Tuteran eta Sakana mendebaldean modu esperimentalean gauzatu ondoren, programaren azken fasea abiarazi da, beste herri batzuetan ezartzeko xedez

Asteartea, 2019.eko martxoak 26

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetak Departamentuak Nafarroa osora hedatuko du, zerbitzuen integrazioaren bitartez gizarteratzeko eskubidea indartzea helburu duen ERSISI proiektu europarraren arreta eredua. Tuteran eta Sakana mendebaldean modu esperimentalean gauzatu ondoren, programaren azken fasea abiarazi da, gerora Foru Komunitateko beste herri batzuetan ezartzeko xedez.



ERSISI proiektuari buruzko topaketan bildutako publikoa.

[ERSISI](#) proiektua europar honi atxikita dauden [ekintzen](#) artean, honako hauek nabarmen daitezke: Errenta Bermatuaren (EB) erabilera eraginkorra sustatzen du, gizarte inklusiorako eskubidean aurreikusitako faseak arinago gauzatzea ahalbidetzen du, gizarte nahiz enplegu arloetatik era bateratuan lan egiteko aukera errazten du, eta diagnosirako tresnak ditu (SIDIS eta Orientasare) arreta misto integratuaren helburuko profilak segmentatzeko.

Halaber, programa hau erabiltzailea partaide eta arretaren erdigune duen lan batean oinarritzen da; erantzunak ematen ditu intentsitate handiko laguntzetarako eta pertsonen egokitutako aktibazio eta formakuntza berritzaileetarako. Horrez gain, ERSISik profesionalen arteko elkarlan zabalagoa eragin du, eta lau talderen parte-hartzeaz osaturiko prestazioa eskaintzeko modua da. Talde horiek enplegu agentzietan kokatuta daude eta diziplina anitzeko profila duten bina kudeatzailek osatzen dute (batak gizarte zerbitzuetako profila du eta besteak, enplegu arloko profila).

Halaxe adierazi du gaur Eskubide Sozialetak lehendakariorde Miguel Laparrak, Iruñeko Civikan entzunaretoan proiektu europarrari buruz eta horren inguruko aurreikuspenei buruz antolatutako topaketan. Jardunaldian, halaber, honako hauek parte hartu dute: Patxi Tuñon,

Errealitate Sozialaren Behatokiko eta Gizarte Politiken Plangintza eta Ebaluazioko zuzendari nagusia eta ERSISI proiektuko zuzendaria; Gema Mañú, Gizarteratzeko eta Gizarte-Babeserako Zerbitzuko zuzendari nagusia; Paz Fernández, NL-NEZeko zuzendari kudeatzailea; Loli Gutiérrez, proiektuaren koordinatzailea, eta Eneko Larrarte, Tuterako alkatea. Gizarte zerbitzueta, NL-NEZeko eta Foru Komunitate osoko entitate ekonomikoetako nahiz hirugarren sektoreko profesionalak ere bertaratu dira.

ERSISI proiektua Europako Batzordeak hautatu zuen 2016an, Enplegu eta Berrikuntza Sozialerako Programa Europarraren (EaSI) barnean finantzatzeko. Eskubide Sozialetako Departamentua sustatzaile nagusia izanik, hauexek dira proiektuaren giltzarritzko beste bazkideak: Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Tuterako Udala, Altsasu, Olazti eta Ziordiako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Elkarte eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).

Kalte-arriskuan dauden langabeak artatzeko eredu berri bat abiarazi du, oinarritzko gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko baterako esku-hartzean oinarrituta. Halaber, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren, erakunde enpresarialen eta garapenerako elkarleen arteko toki mailako aliantzen sorrera bultzatu du Tuterako eta Sakana mendebaldeko esperientzia pilotuetan.

Orain arte, 494 esku-hartze egin dira bazterketa sozialeko arriskuan dauden pertsonekin, eta hirurogeita hamar profesionalak baino gehiagok parte hartu dute, baita gizarte, ekonomia eta unibertsitate arloetako hogeita bost entitatek baino gehiagok ere.

ERSISiri buruzko informazio jardunaldia

ERSISI proiektuari buruzko informazio topaketan, horren gauzatze aldi nabarmendutako profesionalak xehetasun osoz azaldu dituzte ikuspegi metodologikoa, abiarazitako arreta eredua eta garatutako tresna nagusiak; hala nola, Gizarte Inklusiorako Eskubideari buruzko Informazio Sistema (SIDIS), Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetaarako transferentzia dagoeneko abian duena. Egun, sistema horri gehitzen ari zaizkio Komunitateko Gizarte Zerbitzueta langileak. Dagoeneko, 105 profesionalen formakuntza osatu da eta 5 tailera gehiago egingen dira martxan eta apirilean. Enplegu Zerbitzuari dagokionez, SIDISen kopia bat garatzen ari da Orientasaren (orientazio zerbitzuaren datu-basea) eta enplegarritasuna baloratzeko tresna bat gehitu zaio balorazio sozialari lotuago dagoen ko-diagnostikoaren ordez. Lehendabiziko bertsioa martxoaren bukaeran erabilgarri izatea espero da.

Halaber, NUPari atxikita dagoen ebaluazio taldeak aurkezturiko behin-behineko datuetatik, enplegua aktibatze baliabideen erabilera handiagoa egin izana nabarmendu behar da proiektuan parte hartu duten pertsonen artean, gizarte nahiz enplegu zerbitzuak batera jasotzeko aukerak lorturiko balorazio handiarekin batera.

Bestalde, Eskubide Sozialetako Departamentuaren nahiz ERSISI proiektuko giltzarritzko bazkideen ordezkaritza instituzionalek iritziak partekatu dituzte proiektuaren nondik norakoei buruz, bukatu ondoko jarraipena izateko aurreikuspenei buruz, 2019ko irailean bukatzea aurreikusi baita, eta gizarte politiketako funtsezko tresnekin dituen loturei buruz; hala nola, Gizarte Inklusiorako eta Errenta Bermaturako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea; Gizarte Inklusiorako Nafarroako 2018-2021eko Plan Estrategikoa edo Enplegu Politika Aktiboen aldeko 2017-2020ko Akordioa.